

Euskal literaturak letretatik ala 'euskal'-etik du gehiago?

Bilbo. Aurtengo udari begira, EHUK antolatzen dituen BizBAK ikastaroek euskal literaturaren irakurzaletasuna aztertzea zuten helburuetako bat. Gauzak horrela, atzo hasi eta gaur bukatuta, Fito Rodriguez, Ander Iturriotz, Iratxe Retolaza, Ur Apalategi, Arrate Egaña eta Patxi Salaberri batu dira gaiaren inguruan hausnartzeko.

Bidebarrieta Liburutegian Rodriguez, Retolaza eta Iturriotzen txanda izan zen atzo. Azken biek beren gaiak berbideratu bazituzen ere ez zen entzutea espero zenaren muina larregi aldatu. Galdera bakarrean laburbildu daiteke entzundakoaren gogoetarako galdera: letretatik ala euskaletik du gehiago euskal literaturak? Argi du Iturriotzek: 'Euskal kenduta, beste denek ere egiten dute literatura'. Eta ildo beretik agertu zuen Retolazak 'literatura desberdina dela euskal eremuan eta hortik kanpo, baldintzak desberdinak direlako'. Fenomenoek soziologikoki ulertzeko kokapen bat behar dutela gogoratu zuen Iturriotzek, euskal partikularren garrantzia azpimarratuz. Hau, baina, ez datzekio hizkun-tza gutxitua duen euskal gizarteari soilik. Izatez, Txinako eta Ingalaterrako letren artean alde handia dago ere, mundura zabaltzeko orduan, nahiz eta biak izan hizkuntza normalizatuak. Eta hori Iturriotzek euskal idazleen hizkuntza aukerarekin lotu zuen: 'Euskal idazleak modu inkonzientean egiten du hizkuntzaren hautua'.

Iratxe Retolazak hezkuntzari eman zion garrantzia berezia. Bere aburuz heziketa literarioa erabat ahaztu duen hezkuntzari. Horren ondorioz, bai euskal idazlea bai eta euskal irakurlea ere 'erreferenteen faltan dago' euskarazko literaturaren inguruan. Hala ere, zorroztu egin zuen kritika: 'Heziketa literarioa euskaraz gaztelaniaz baino askoz ere eskasagoa da', adierazi zuen. Salbuespenak salbuespen, euskal heziketa literarioaren hutsunea kritikatu zuen donostiarrek.

Goizeko hitzaldion ostean, arratsaldeaz mahai ingurua osatu zuten, gaur ere jardunaldion inguru izango den Bidebarrieta Liburutegian.